



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 15a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00150. Galdera, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-23/PES-00151. Galdera, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-23/PES-00152. Galdera, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-23/PES-00153. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00154. Galdera, 5G Sariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00155. Galdera, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00156. Galdera, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00157. Galdera, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00158. Galdera, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00159. Galdera, enpresa-kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-23/PES-00160. Galdera, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean erailda-ko nafarren aitortzarako jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-23/PES-00161. Galdera, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-23/PES-00162. Galdera, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-23/PES-00163. Galdera, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-23/PES-00164. Galdera, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-23/PES-00165. Galdera, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren hartzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-23/PES-00166. Galdera, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-23/PES-00167. Galdera, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko Batzordearen bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

A s a i l a :
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00001. 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 8an egindako bilkuran, ezetsi egin zituen 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioek eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00150. Galdera, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, galdara komunitarioak berritzeko laguntzei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du erki-degoetako galdarak berritzeko laguntzei buruz (11-23/PES-00150). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer laguntza ekonomiko eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak galdara edo instalazio termiko zentralizatuak berritzeko?

1124/2021 Errege Dekretua (167E/2022 Ebazpena) ekonomiaren zenbait sektoretan energia termiko berriztagarrien instalazioak ezartzera dago bideratuta, horien artean sektore publikoan.

Diruz laguntzen ahal dira instalazio termiko berriztagarri berriak jartzeko eta dauden ekoizpen sistemak handitzeko eta ordeztzeko jarduketak.

Hauek dira laguntzaren hartzailak:

- Pizgarrien 1. programa: industria sektoreko pizgarriak

- Pertsona fisikoak

- Pertsona juridikoak

- Entitate publikoak

- Elkarteak

- Pizgarrien 2. programa: beste sektore batzuetako pizgarriak, kanpo utzita bizitegien sektorea, 477/2021 Errege Dekretu bidez kudeatzen baita hori.

- Toki entitateak

- Entitate publikoak

- Elkarteak

2. Ehunekoak eta zenbatekoak bereizten al dira galdara berrien energia-iturri motaren arabera, berriztagarria den edo jatorri fosilekoa den kontuan hartuta?

Dirulaguntza hori jatorrizko iturri berriztagarriak soilik erabiltzen dituzten instalazioetarako da. Ez dira barne hartzen jatorri fosileko iturriak.

Aplikatzeko tipologia deialdiaren AI.1 Eranskinan (Diruz lagundu daitezkeen jarduketak) daude azalduta. Besteak beste, honako hauek: aerotermia, biomasa, eguzki energia termikoa etab.

Aurrez definitutako programa bietarako, dirulaguntzaren zenbatekoa laguntzaren oinarriaren eta laguntza osagarriaren arteko batura da, deialdiaren III. eranskinarekin bat definitutako diruz lagundu daitezkeen kostuak kontuan hartuta.

Pizgarrien 1. programarako dirulaguntzaren zenbatekoaren oinarria hauexek izanen da:

	Enpresa handietako dirulaguntza oinarriaren %	Enpresa ertainetako dirulaguntza oinarriaren %	Enpresa txikietako dirulaguntza oinarriaren %
Pizgarrien 1. programa	% 35	% 40	% 45

Pizgarrien 2. programarako dirulaguntzaren zenbatekoaren oinarria diruz lagundu daitekeen kostuaren % 70 izanen da.

Azkenik, Erronka Demografikoko udalerrietan gauzatzen diren jarduketan kasuan, diruz lagundu daitekeen kostuari aplikatzen ahalko zaion laguntzaren portzentajea 5 portzentaje puntu handituko da. Hori laguntza osagarri gisa definitzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-23/PES-00151. Galdera, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren gaineko mozioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-23/PES-00151 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz, zehazki: joan den irailaren 28an, Nafarroak Parlamentuan mozio bat onetsi zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen Prestazio ortoprotesikoa arautzen duen martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretuaren zenbait puntu alda zitzan, atzera egitea dakartelako

prestazioei dagokienez, gure erkidegoan horren aurretik zegoen araudiarekin alderatuz gero. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa: Zehazki, aurreko arauan baino modu murriztaileagoan mugatzen dituzten artikulak aldatzea eskatzen zen: herritarra finantzatzeko aukera, preskripzio-gaitasuna, preskripziorako irizpide murriztaileak eta bateraezintasunak.

Aipatu foru dekretua 2023ko urriaren 1ean indarrean sartzea aurreikusten zela kontuan hartuta, zertan da foru dekretuaren aplikazioa? Zer urrats egin dira onetsitako mozioa aintzat hartzeko?

Martxoaren 29ko 33/2023 Foru Dekretua, prestazio ortoprotesikoa arautzen duena (kanpoko ortoprotesien modalitatea) eta Nafarroako prestazio ortoprotesikoa kudeatzen laguntzen duten establezimenduen erregistroa sortzen duena, 81. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko apirilaren 20an.

Bigarren xedapen iragankorrak prestazio hori kudeatzen laguntzen duten establezimendukolaboratzaileen erregistroaren sorrera jasotzen

du eta sistema informatikoak prozedura berrietara egokitzeko sei hilabeteko epea ezartzen du, indarrean jartzen denetik kontaktzen hasita.

Aipatutako araudia betetze aldera, 2023ko urriaren 16an, Nafarroan prestazio ortoprotesikoa kudeatzeko prozedura jarri zen abian, prestazioa eskuratzeko prozedura eta baldintzak errazten dituen, kolaboratzaile izatea eskatu duten establezimenduei zuzeneko ordainketa sistema ezarriz.

Azpimarratu behar da audifonoak finantzatzeko adina 26 urtera arte luzatzeaz gain, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak prestazioa zuzenean ordaintzeko prozeduraz baliatzeko aukeraz gain, 33/2023 Foru Dekretuak garezurreko kaskoa gehitu duela bere katalogoan, garezurreko malformazioak dituzten haurrentzat. Horrez gain, beste autonomia-erkidegoetan finantzatzen ez diren honako hauek ere finantzatuak ditu: eskuz bultzatzen diren gurpil aulkien konponketak, gurpil aulki motorizatuak, ortoprotesi bereziak eta kanpoko ortesi eta protesiak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideak ezartzen du Administrazio Publikoek (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua) honako printzipio hauen arabera jardunen dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta eraginkortasuna. Herritarrentzat, langile fakultatiboentzat, kudeaketan lan egiten dutenentzat eta

establezimenduentzat prozedurak errazak izatea nahi izan da. Foru Dekretuak herritarrei beren eskubideak gauzatzea errazten die eta lortu nahi diren helburuetara iristea gutxien murrizten duten neurriak aukeratzen ditu.

Produktu ortoprotesikoen arteko bateraezintasuna eta preskripzio ahalmena aurreko araudian baino modu murriztaileagoan mugatzen dela aipatzen denean, azpimarratu nahi da lehen ez zegoe-la araututa. Beraz, ez da murrizketa bat, prozedura bat baizik, eta prozedura horretan mediku preskriptoreekin baloratu da espezialitate bakoitza zer preskripzio egitera dagoen ohituta. Bateraezintasunak izan dira klinikoekin landutako beste gai bat. Beraz, ez da murrizketa bat, preskripzioaren egokitzapen bat baizik.

Herritarrei prestazio ortoprotesikoa finantzatzeari dagokionez, honako agindu hauetan jasotako nahitaez bete beharreko estatu araudia aplikatzen ari da: SCB/45/2019 Agindua, urtarrilaren 22koa, SCB/480/2019 Agindua, apirilaren 26koa eta SND/44/2022 Agindua, urtarrilaren 27koa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00152. Galdera, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan basa eper gorriaren populazioak duen gainbeherari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-23/PES-00152 informazio eskaera egin du, Nafarroako eper gorri basatiaren populazioa murriztearen inguruan. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1) Egindako galderari dagokionez, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren eskumeneko esparruan daude ehizaren plangintza osoaren inguruko eskumenak, ehiza faunaren populazioen jarraipena eta kontrola, ehiza debekualdiei eta harrapatu eta merkaturatu beharreko espezieei buruzko urteko xedapenen proposamenak egitea, eta ehiza arloko laguntzen diseinua eta kudeaketa.

Horren ondorioz, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuak hartutako kudeaketa neurriak honako hauek dira:

- Populazioaren jarraipena eta populazioen beherakadaren kausen azterketa

90eko hamarkadaren hasieratik, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeko langileek laginketa batzuk egin dituzte otsailean eta martxoan, espezie horren ugalketa populazioen urte arteko bilakaera baloratzeko. Uztailean eta abuztuan, aldiz, espeziearen urteko produktibitatea zehazten dute, barrutien zaindarekin lankidetzan. Populazioaren jarraipenetik ondoriozta daitekeenez, Foru Komunitatean eper gorriaren populazioak behera egin du, gutxienez azken bi hamarkadetan.

Beherakada horren arrazoi nagusien artean, nabarmentzekoak dira azken hamarkadetan paisaia eraldatzeko eta areagotzeko egindako jarduketak (lurzatiak biltzea, ureztapen berriak, etab.).

Nekazaritza optimizazio horrek nabarmen murriztu edota hondatu du espeziearentzako azalera potentziala.

- Eper gorriaren aprobetxamendua iraunkortasun irizpideen arabera antolatzea, debekualdiei buruzko urteko foru aginduen bidez.

Azken urteotan, barrutietan ehizatu beharreko egunen gehieneko kopurua murrizten joan da, eta presioa espeziearen egoeraren arabera doitzen saiatu da. Onartutako azken erregulazioan, ehizatu beharreko gehieneko zenbatekoa populazio parametro zehatzek zehazten dute.

– 2023-2024 Debekualdiei buruzko Foru Agindua (186E/2023 Foru Agindua, uztailaren 14koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2023-2024 denboraldirako ehiza debekualdiei buruzko xedapen orokorra onesten duena).

11. artikulua. Eperra.

1. Baimena ematen da eperra ehizatzeo 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urtarrilaren 29ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

2. Honako hau izanen da gehieneko egun kopurua barruti bakoitzeko:

a) Barrutiak 2023ko udaberrian dituen ugaltzaileen kopurua ehiza antolatzeko planean ezarritako potentzialtasunaren % 50etik beherakoa baldin bada: 0 egun.

b) Barrutiak 2023ko udaberrian dituen ugaltzaileen kopurua ehiza antolatzeko planean ezarritako potentzialtasunaren % 50 edo handiagoa baldin bada:

a. 2023ko udaberrian ugaltzaileen kopurua txikiagoa baldin bada 2022ko aldi berekoa baino: egun bat.

b. 2023ko udaberrian ugaltzaileen kopurua 2022ko aldi berekoa edo handiagoa baldin bada: bi egun.

c. Barrutiak 2023ko udaberrian 2022ko aldi berean baino ugaltzaile kopuru handiagoa baldin badu eta ugaltzaileen eta eper ehiztarien arteko erlazioa 12,5etik gorakoa bada: hiru egun.

d. Barrutiko dentsitatea 2023ko udaberrian 0.2 animalia/ha-tik gorakoa bada, eta potentzialtasuna % 30etik gorakoa bada aurreko denboraldiarekin alderatuta: hiru egun.

3. Apartatu bakoitzari dagozkion barrutien zerrenda Nafarroako Gobernuaren atarian argitaratuko da.

Ehiza arloko laguntzak

– Nafarroako toki erakundeentzako laguntzak espezie zinegetikoek eragindako kalteak prebenitzeko eta ehiza espezieen habitata hobetzeko, 2023. (Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 27/2023 Ebazpena, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez deialdia onesten baita). Baimendutako gastu konpromisoa: 40.000 €.

– Nafarroako toki erakundeentzako laguntzak, ehizazainak kontratatze, 2023 (Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 13/2023 Ebazpena, martxoaren 8koa, zeinaren bidez deialdia onesten baita). Baimendutako gastu konpromisoa: 100.000 €.

– Ehiztarien tokiko elkarteentzako 2023ko laguntzak, ehizazainak kontratatze, kalteak

prebenitzeko eta ehiza espezieen habitata hobetzeko, 2023 urterako. (Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 75/2023 Ebazpena, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez deialdia onesten baita). Baimendutako gastu konpromisoa:

Ehizazainak: 122.623 €

Kalteak prebenitzeko eta ehiza espezieen habitata hobetzeko: 132.900 €

Azkenik, adierazi behar da 2017tik eper gorri autoktonoa itxian hazteko proiektu pilotu bat egingen ari direla Nafarroan, Nafarroako barrutietan arrautzak, txitak eta espezie horretako helduak harrapatuta. Proiektuak barne hartzen du analisi genetikoak egitea hazkuntzarako ale egokiak aukeratzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00153. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen inguruan argitaratutako informazioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Angel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du –2023ko urriaren 30eko 4311 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsei buruz

argitaratutako informazioaren harira (11-23/PES-153). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak konpromisoa du kontuak ematearekin eta gardentasunarekin. Jarrera hori argi geratu zen Gobernuak adierazi zuenean ados zegoela gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko foru legea aldatu zuen foru lege proposamenarekin. Berorrek xedapen bat sartu zuen gardentasuna bermatzeko Europako funtsen kudeaketan.

Gobernu Irekiaren atarian atal bat sortu da jadanik proiektuen, dirulaguntzen eta kontratu publikoen berri emateko, baina informazio horrek izan behar duen irismena eta hedapena orain arte ezin izan dira eman, erabili behar dugun Estatuko Administrazio Orokorraren tresna informatikoa oraindik ez delako martxan jarri. Aipatutako tresna abian den unean informazio gehiago ematen ahal-

ko dugu hizpide izan den foru legean ezarritakoa erabat betetzeko.

Planteatutako bigarren galderaren harira, Next Generation funtsen webgunean informazioa jasota dago Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planen funtsen lizitazioei eta dirulaguntzen deialdiei buruz, eta datozen deialdiei buruz ere bai. “Buscador de Convocatorias” botoian egin behar da klik. Tresna horrek aukera ematen du zuzenean konektatzeko lizitazioei eta dirulaguntzei buruzko informazio ofizial guztia jasota dagoen Estatuko datu basearekin; horrez gain, informazioa ere

eskuratzen ahal da datozen deialdiei buruz, irekita daudenei buruz eta jadanik itxi direnei buruz. Eta hori guztia nola maila nazionalean hala Nafarroako esparruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00154. Galdera, 5G Sariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 5G Sariei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, 5G sariei buruz (11-23/PES-00154). Hona Nafarroako Gobernuo Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Zure galderan zioen azalpenean azaltzen dizunez, aipatzen dituzun sariak kultura berritzailea sustatzeko eta teknologiak industriaren arloan ematen dituen aukera eta gaitasunei buruz sentsibilizatzeko sortu ziren.

2023. urte honetarako, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak beste aurrerapauso bat eman nahi izan dugu, sariak eskuragarriagoak izan daitezen azpiegiturak eta

prozesuak digitalizatzearekin lotutako proiektu berritzaileak garatzen dituzten edota egiten ari diren negozio unitate, erakunde eta enpresentzako, bai eta zibersegurtasunari, sareei, aplikazioei, datuen analisiari, azpiegitura hibridoiei, komunikazioei, Gauzen Internetari (IoT) eta eraldatzailetzat hartzen ahal den beste edozein teknologiarik lotuta proiektuak garatzen dituztenentzako ere.

Horretarako, eta sariak ez bikoizteko xedez, Digitalizaziorako IRIS sariak sortu ziren. Lehenengo edizioa irailean izan zen eta bost kategoria izan zituen:

- Enpresa Digitalizatua
- Lankidetzaren Proiektu Digitala
- Merkataritza Digitalizatua
- Erakunde Publiko Digitala
- Hirugarren Sektorearen Digitalizazioa

Sariok banatzeko ekitaldia Iruñeko Planetarioan izan zen azaroaren 15ean. Gaur egun, sariak banatzen hurbil gaudenez, barneko balantze bat egiten ari da izan behar duten etorkizunari eta maiztasunari buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

11-23/PES-00155. Galdera, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñeko aireportuaren eta Madrilen arteko hegaldi erregularrei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruñeko aireportutik Madrilera abiatzen diren hegaldi erregularrei buruz (11-23/PES-00155).

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Gaur egun, Nafarroa eta Madril arteko hegaldiak bermatuta daude, eta, izan ere, duela gutxi hiri bien arteko maiztasunak areagotu dira, Madrilen goizean goiz egon behar dutenek egoteko eta mundu osoarekin konektatzeko aukera izan dezaten.

PSOE eta Sumar taldeen arteko akordioa aipatu da ere bai; bada, 32. orrialdean jasota dagoenez, honako hau dakar testuak hitzez hitz:

“Gure inguruko beste herrialde batzuek egin duten bezala, herrialde barruko hegaldiak murriztea sustatuko dugu baldin eta bi ordu eta erdi baino gutxiagoko tren bidaia egiteko aukera badago, nazioarteko ibilbideekin lotura egiteko hub aireportuetan loturako hegaldiak hartzeko kasuetan izan ezik”.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00155). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak emandako erantzuna berresten du, departamentu hori baita gaiari buruzko eskumena duena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

11-23/PES-00156. Galdera, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, tokiko polizien arteko koordinazioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00156) udaltzaingoen koordinaketari buruz. Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuari eta Nafarroako Foruzaingoari informazioa eskatu ondoren, honako hau da Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen duen informazioa:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 254/2023 Foru Dekretuaren 10. artikuluko f) letrak ematen dion eskumeneren arabera, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak, besteak beste, udaltzaingoak koordinatzeko eginkizuna betetzen du, Babes Zibilaren arloan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen 16.1 artikulua arautzen du Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren erakunde aholku-emaille gisa, udaltzaingoen koordinazioa dela-eta dagozkion eginkizunak bete ditzan.

Arestian aipatutako artikuluen 6. puntuan adierazten denez, honako hauek dira Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen eginkizunak:

a) Udaltzaingoak ukitzen dituzten xedapen orokorren proiektuei buruz derrigorrezko txostenak egitea.

b) Administrazio publikoetako organo eskudunei egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzea udaltzaingoen zerbitzuak hobetzeko eta haien baliabide teknikoak homogeneizatzeko.

c) Batzordeburuak eskatzen dion beste edozein gairi buruzko txostenak egitea dituen eskumeneren esparruan.

d) Indarra duten xedapenek haren gain uzten dituzten gainerako eginkizunak.

Nafarroako Poliziegi buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 23.1 artikulua adierazten du Nafarroako Udaltzaingoen honako lege hauek ezartzen dizkieten eginkizun guztiak beteko dituztela, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen kasu eta moduetan: 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa; 8/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzkoa eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoa, bereziki eta besteak beste, Polizia Judizialari buruzkoa.

Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak jakinarazi du, dakienaren arabera, Departamentuak ez diela udaltzaingoei errekerimendurik egin, polizia judizialak diren heinean, beren funtzioetan gehiegikeriak egin ez ditzaten. Ez dago jasota, ezta ere, Foruzaingoaren Ikerketa Kriminalaren Arlotik errekerimendurik egin denik.

Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak jakinarazi du ez duela inolako akordiorik edo neurririk ezarri gai horren inguruan, eta, beraz, ez du jakin horrelakorik gertatu denik. Planteatutako egoeraren baten berri izanez gero, aipatutako Zerbitzuak berehala jakinaraziko dio Barne Zuzendaritza Nagusiari, dagozkion neurriak har ditzan, indarrean dagoen legediaren arabera.

Barneko kontseilariaren oniritzia eskuratu ondoren, 2011n Foruzaingoa ekimena hartu zen 112ri eskatzeko izaera larriko zenbait gai Foruzaingoaren bidez kudea zitezela. Ekimen hori hartu zen Foruzaingoa bere baliabideen bidez delitu larri jakin batzuk kudea zitzaizkan, eta ez, ordea, udaltzaingoen beren eskumenerako ez diren polizia judizialen funtzioak betetzea saihesteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

11-23/PES-00157. Galdera, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako larrialdietako 112 telefonora deitzeko protokoloari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00157) Nafarroako larrialdietarako 112 telefono zenbakira deitzeko protokoloari buruz. Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari informazioa eskatu ondoren, honako hau da Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen duen informazioa:

112 SOS NAFARROA Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren protokolo operatiboak ez dira aldatu aipatutako zentzuan 2019ko martxoaren 5etik. Beste alderdi batzuetan eguneratu dira 2022ko

uztailaren 8an, 2023ko urtarrilaren 19an, urte bereko ekainaren 1ean eta 15ean, eta, azkenik, aurtego uztailaren 15ean.

Ez da jaso eguneraketarik ez-betetze gisa hartu ahal denik 4. galderarako erantzunean azaldu den bezala.

Zerbitzuaren Zuzendaritzak inola ere ez du kontrako jarduketarik egin aipatutako protokoloari lotuta, ez ahozko komunikazioan, ezta idatziz ere.

Zalantzan jarri den protokoloa beste era batera planteatzearen edota interpretatzearen ondorioz sortutako aldaketa eta gorabehera horien berri ez da izan. Edonola ere, mota horretako intzidenteez berezkoa duten kausalitate aldagarriaren ondorioz, betiere beharrezko eta premiazko erantzuna emateko baliabideak esleitzeko efizientziaren eta proportzionaltasunaren mesedetan, abisuak aldi berean edota aurretik heltzen ahal dira Poliziaren Areto batera edota bestera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria. Amparo López Antelo

11-23/PES-00158. Galdera, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arzas Porrás jaunak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00158):

- Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzako profesionalen erreklamazioen berri izan du gure taldeak –erreklamazio horiek Diario de Navarra egunkariak jaso zituen 2023ko ekainaren 1ean–, eta orobat jakin dugu badela arrisku psikosozialei buruzko txosten bat, zeinean zenbait hobekuntza proposatzen baitira zuzendariordetza horretako zerbitzuei dagokienez. Hori horrela, honako galdera hau egiten dugu: Zer neurri hartu dituzue txosten horretako gomendioak eta profesional horien eskaerak betetzeko?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Familiaren eta Adingabeen zuzendariordeak zuzentzen duen lantalde bat eratu da (lehen idazkari tekniko nagusiak zuzentzen zuen), teknika-riek, Bulegoetako buruek, Babesgabetasun Egoera Baloratzeko Ataleko buruek eta Zaintza eta Neurri Judizialen Ataleko buruek osatua. Lantaldeak hiru bilera egin ditu: bi bilera uztailean eta

bilera bat urriaren 19an. Abenduaren 14an beste bilera bat egitea aurreikusten dute. Hilero bilerak egitea aurreikusten da, Arrisku Psikosozialen Ebaluazio Espezifikokoaren txostenean adierazitako arrisku faktoreak zuzentzeko neurri gisa aurreikusitako jarduketak koordinatzeko.

Lantaldea erabakiak hartzen hasi da, txostenean adierazitako arrisku maila esanguratsua duten arrisku psikosozialei buruz: lan bolumena, bitartekoengan eragin larriak dituzten erabakiak hartzea, zama emozionalak, erabiltzaileei emandako arreta, eta mehatxuak, irainak edota kanpoko erasoak. Horretarako erreferentziatzat hartu dira Laneko Arriskuen Atalak proposatzen dituen neurri zuzentzaileak arrisku esanguratsua duten faktore bakoitzerako, eta baloratu da ea ezarri diren, ezartzeko prozesuan dauden edota abian jarri behar diren. Lehenengo baloraziotik (gai horren inguruan hurrengo bileran sakonduko da) ondorioztatu da bost neurri ezarri direla, zazpi neurri ezartzeko prozesuan daudela eta sei neurri abian jarri behar direla. Pixkanaka jarduketak diseinatu eta abiaraziko dira laster jarduketa guztiak ezartzeko asmoz.

Halaber, lanari ekingo zaio txostenean adierazitako arrisku maila ertaina duten arrisku psikosozialeko faktoreekin.

Lan horren helburua da 2024ko ekainean arrisku maila ertaina eta larria duten arrisku faktoreei buruzko neurriak ezarrita egotea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00159. Galdera, enpresa-kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enpresa-kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Enpresaren kudeaketan prebentzioa integratzeko programari buruz (11-23/PES-00159). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osauneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

ENPRESAK ERAKARTZEKO ETA INTEGRATZEKO PROGRAMA HEDATZEKO EKINTZAK ETA NEURRIAK

Enpresetan Prebentzioa Integratzeko Programaren helburu orokorra da prebentzio kultura eta autonomia handiagoa sustatzea enpresetan arriskuen kudeaketa hobetzeko, lanaren ondoriozko kalteen maiztasuna eta larritasuna murrizteko.

Hauek dira berariazko helburuak:

- Programa aplikatzeko behar diren enpresetako prebentzio arduradunen trebakuntzako tresnak diseinatzea eta egitea.

- Ahalik eta enpresa gehien programaren kide egitea.

- Enpresek arriskuen prebentzioaren kudeaketa propio zein autonomoan ahalik eta autonomia maila handiena sustatzea.

- Langileen parte hartze aktibo zuzena eta delegatua indartzea arriskuen kudeaketan.

- Enpresetan arriskuen kudeaketa hobetzea.

- Enpresa osasungarria sustatzea. Ingurune osasungarrien eta lan ongizatearen kontzeptuan aurrera egitea.

2022 eta 2023. urteetan zehar programaren tresnak lantzen egon gara:

- Enpresetan arriskuak identifikatzea eta horiek kentzea edota murriztea errazten duen tresna (laneko arriskuen kudeaketaren zikloa).

- 60 orduko Laneko Arriskuen Prebentzioaren Oinarriko Mailako Ikastaroaren (teorikoa eta praktikoa) irakaskuntza gida egitea.

- Prebentzioa kudeatzeko tresna eta dagokion erabilerari buruzko eskuliburua egitea.

2022 eta 2023. urteetan zehar adinekoentzako egoitzetan lehenengo pilotajea egin zen.

Jarduketak egin baino lehen eta xede ziren enpresei azterlan pilotuari buruzko informazioa helarazi baino lehen, bilerak egin ziren eta horietan azterlanaren oinarriak azaldu zitzaizkien honako departamentu, erakunde eta agente hauei:

- Eskubide Sozialetako Departamentua

- LARES (Nagusien Egoitza eta Arreta Zerbitzuen Elkarte-Sektore solidarioa), azterlan pilotuaren xede diren enpresa gehien enpresa ordezkari gisa.

- Sektorean sindikatu gehiengodunen ordezkariak.

Hasiera batean integrazio programa 100 langile baino gutxiagoko adinekoen egoitzetan eskaini zen. Prebentzio modalitateen inguruko berezitasunak direla-eta, enpresa talde handietako egoitzak kanpoan utzi ziren. Era berean, erabiltzaileak erlijiosoak baino ez diren egoitzak ere kanpo utzi ziren hasieran. Guztira 44 egoitza izan ziren xede enpresa.

Enpresei zuzenean informatu zitzaizen 2022ko urriaren 6an aurrez-aurre eta online egin zen jardunaldi batean. Aurretiaz helbide elektronikoaren bidez deialdia egin zen (I. eranskina) eta azterlan pilotuari buruzko informazio liburuxka bidali zitzaizen (II. Eranskina).

Gainera, jardunaldi hau egingen zela jakinarazi zen Egoitza Soziosanitarioetako Arreta Sanitarioa Antolatze Unitatearen buletinaren bidez (II. eranskina).

Jardunaldi horretarako informazio liburuxkaz gain, programari eta azterketa pilotuari atxikitze dokumentua helarazi zitzaizen (IV. eranskina), bai

eta hasierako informazio fitxategi bat ere. Jakinaz zitzaien hamabost eguneko epea zutela interesa zuten enpresek azken bi dokumentuak beteta bidaltzeko.

Hurrengo egunean, urriaren 7an, beste jardunaldi bat egin zen. Kasu horretan egoitzen prebentzioko ordezkariak deitu ziren. Sindikatuen bidez deitu zitzaaien (V. eranskina). Jardunaldi horretan prebentzioko integrazio programaren esparruan ezarritako jarduketak proposamena azaldu zitzaaien zuzenean eta animatu zitzaaien bakoitzak zegokion enpresan sustatzeko azterlan pilotuan parte hartzea.

ADINEKOENTZAKO EGOITZEN AZTERLAN PILOTUAN PARTE HARTU DUTEN ENPRESAK

Hasiera batean honako enpresa hauek atxiki ziren azterlan pilotura:

Zangozako San Vicente Paul, udalaren zahar-etxea

San José etxea (Corella)

Lizarrako San Jerónimo zahar etxea

Tafallako San Manuel eta San Severino egoitza

Solidaridad de Castejón egoitza mistoa

Altsasuko Aita Barandiaran zaharren egoitzaren patronatua

VESTA elkarteak Cascanteko Ntra. Sra. del Rosario egoitza

Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte egoitza (hasiera batean ez zen xedea)

Iruñako Beloso Alto egoitza (hasiera batean ez zen xedea)

Iruñako Erruki Etxea (hasiera batean ez zen xedea)

Azterlan pilotuan hiru egoitza sartu ziren, beroriek eskatuta, hasieran planteatutako baldintzak betetzen ez zituztenak.

Programaren garapenean zehar, hainbat egoitza atera dira askotariko arrazoiengatik.

Gaur egun, gainerako egoitza zentroekin lanean jarraitzen da nahasmendu muskuloesketikoak eta arrisku psikosozialak prebenitzeko eta hori lortzeko arrisku ergonomikoetan esku hartzen da.

Esku hartzeak bukatzean programaren ebaluazioa egingen da. Oraindik ez gara fase horretara heldu, baina dagoeneko bi alderdi identifikatu ditugu, gure ustez enpresak programari atxikitzeko onuragarriak izan daitezkeenak:

– Programarekin bat egiten duten eta programan ezarritako jarduketak gauzatzen dituzten enpresak Nafarroako Gobernuak aintzatetsi beharko lituzke: jardunbide egokiak, enpresan arriskuak saihesteko neurriak hartzeko laguntzak, enpresa horien publizitate positiboa....Azken batean, enpresen parte hartzea sustatu behar da.

– Beharrezkoa da laneko arriskuen prebentzioan parte hartzearen onurak eta parte hartzeari buruzko prestakuntza zabaltzea, bai enpresaburuen artean, bai langileen artean. Lan Osasunaren Zerbitzuan, garatutako fase pilotuaren esperientziaren ondoren, uste dugu parte hartzen duten enpresa eta langileen partaidetzako prestakuntzak programaren beste tresna bat izan behar duela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00160. Galdera, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean eraildako nafarren aitortzarako jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 1936. eta 1939. urteen artean Errepublikak kontrolatutako lurraldean eraildako nafarren aitortzarako jarduketei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte jaunak PES-160 galdera egin du, honako hau:

Zure departamentuak –edo honen aurrekoak, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak– ezer egin al du Errepublikako gobernuaren kontrolpeko lurraldean 1936tik 1939ra bitarte eraildako nafarren aitortzari begira?

Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Jakina denez Gobernu honek, oro har, eta Departamentu honek, bereziki, konpromiso argia eta nabaria erakutsi dute bake bizikidetzaren alde, indarkeria oro deslegitimatzearen alde, biktimen aintzatespenaren eta erreparazioaren alde, eta giza eskubideen eta giza duintasunaren alde. Memoria integral kritiko, erreparadore eta justu baten alde lan egitea da kontua, etorkizun bakeitsu eta komun bat eraikitzeko, eta, nire ustez, ezin da horri buruzko zalantzarik egon.

Printzipio orokor hori argi utzita —azken legealdietako akordio programatikoetan jasota eta gaur egungo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo

Ekintzako eta Euskarako Departamentuko gure jarduketetan zeharka presente dagoena— egia da jarduketa horiek dagokien eta indarrean dagoen arau esparruan garatu behar direla, egunean eraginkor egitea ahalbidetzen baitute. Esparru horren abiapuntua honako hau da, foru mailan eta estatu mailan: beharbada, enuntziatuan aipatzen diren biktimek jadanik izan dute errekonozimendu hori egitate horiek gertatu ziren aldian; beste biktima batzuek, berriz, kolpe militarrek eta horren ondoriozko diktadurak ukitutakoek, esaterako, ezin izan zuten aintzatespen eta erreparazio hori jaso gerra horretako garaileek ezarritako erregimen ez demokratiko hori indarrean egon zen bitartean.

Ildo horretatik eta dakizunez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 1. artikulua xedea honako hau da: “1936ko uztailaren 18an izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten edo errepresio frankistaren biktima izan ziren pertsonen memoria historikoa berreskuratzea, eraildako pertsonen memoria leheneratuz, aitortuz eta bere onera ekarriz, bai eta haurtxo-lapurketaren jokabidearen biktimena ere”.

Hori da Departamentu eta Gobernu hau egiten ari direna —beste jarduketa batzuk ere aztertu ahal izateari kalterik egin gabe— gure eskumen, denbora eta espazio esparruan, eta hori bateragarria da edozein ekintza bortitz eta edozein biktimaren hilketari arbuiatzearekin, hasieran esan dudana bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-23/PES-00161. Galdera, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zuzeneko Eragineko Antikoagulatzaileen inguruan onetsitako mozioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zuzeneko antikoagulatzaileei buruz (11-23/PES-00161). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Aurikula fibrilazio ez balbularra duten pazienteei bermatzea eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidan gomendioekin bat.

Kardiologiaren Europako Sozietatearen gidak, Kardiologiaren Espainiako Sozietateak erabiltzen duenak, jaso egiten ditu bai K bitaminaren antagonistak (AVK) erabiltzea INRaren kontrol egokia eginda bai eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak erabiltzea, eta gomendatzen du ahal dela azken horiek lehenestea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ikus-onesteko irizpideak bat datoz Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren Posizionamendu Terapeutikoaren Txostenean (IPT) ezarritakoarekin, hau da, jotzen da ezen, nahiz eta AVK-k lehenengo aukera izaten jarraitu, eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak baimentzen direla inguruabar jakin batzuetarako. Zehazki, baimentzen da hasierako tratamendua eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileekin egitea garezur barneko odoljarioa izan duten pazienteen kasuan, garezur barneko odoljarioa izateko arrisku handia adierazten duen neuroirudia edota irizpide klinikoak dituzten eta iktus iskemikoa izan duten pazienteen kasuan, nahiz eta antikoagulazioa egokiro kontrolatu AVK bidezko tratamenduan dauden eta tronboembolismo arterial larriak dituzten paziente-

en kasuan eta, azkenik, nahiz eta irizpide terapeutikoak behar bezala bete antikoagulazioa tarte barruan (INR 2 eta 3 artean) mantendu ezin den pazienteen kasuan.

2.- Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen bidezko ahotiko tratamendu antikoagulatzailearen hasiera malgutzea, aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteek iktusa eta/edo odol galera handiagoa pairatzeko arrisku handia erakusten dutenean, eta/edo K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioa lortzeko aukera gutxi dutenean.

Gomendio hori jadanik ari da gauzatzen, aipatutako IPTaren irizpideekin bat. Hasiera batean onesten da zuzeneko eragineko ahotiko antikoagulatzaile bidezko tratamendua 1. puntuan adierazitako pazienteentzat. TRTaren (tarte barruko aldi terapeutikoa) portzentaje txikiko kasuetan, eta aurrez aipatutako egoera klinikoetan, zuzeneko eragineko ahotiko antikoagulatzaileetara aldatzea baimentzen da ikus onespina azkar eginda.

3.- Hiru hilabetera jaitea K bitamina-antagonistetatik eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileetarako aldaketa baimentzeko epea K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioaren kontrol txarra duten pazienteekin.

Ez da murriztu. IPTak emandako irizpideari eutsi zaio, eta berorrek ezartzen du balorazio aldirako gutxienez ere azken sei hilabeteak hartu behar direla, kanpo utzita lehenengo hilabeteko INRak (hasieran dosia doitu bada) eta ebakuntza kirurgikoen, ahoko ebakuntzen eta beste prozedura batzuen ondoriozko aldaketa aldiak.

4.- Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek gaur egun behar duten ikuskapen-bisatua sinplifikatzea, geroagoko berrikusketa duen bisatu automatikora iraganez.

Ez da ikus-onespen automatikoa ezarri zuzeneko eragineko ahotiko antikoagulatzaileetarako, ezta ikus-onespena behar duten beste medikamentu batzuetarako ere. Bideragarritasun azterlan bat martxan da medikamentuen ikus-onespena automatizatzeke. Oro har, medikuak eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzailearen beharra egokiro justifikatuz gero, eta IPTak ezarritako irizpideak betetzen badira, arin baimentzen da.

5.- Osasun arloko profesionalendako alerta sistema informatizatu bat ezartzea, garaiz identifi-

katu ahal izateko gaizki antikoagulatuta dauden pazienteak eta tratamendua aldatzeko neurriak aldatzeko.

Ez da ezarri. Laster eguneratuko da Antikoagulazioari buruzko gida eta arazo hori tratatzen ahal-ko da. Egoki jotzen bada, bideragarritasun azterlan baten bidez aztertu behar da ikusteko zer produktu hartzen diren barne eta garapena planteatzeko.

Nolanahi ere, antikoagulatutako paziente guztiei hurbileko jarraipena egiten zaie Oinarrizko Osasun Laguntzatik, eta, kasuan kasu, klinikaren arabera, Arreta Espezializatutik zaintza egiten da. TRTa automatikoki kalkulatu da Oinarrizko Osasun Laguntzaren historia klinikoan eta, hain zuzen, historia klinikoan jasotako txosten batean agertzen da.

6.- Kalitate auditoriak gehitzea iktusaren prebentzioan eta antikoagulazioaren kontrolean.

Ez dira ezarri eta ez dago ezartzeko planik.

7.- Antikoagulatutako pazienteen behatoki bat sortzea, bizitza errealeko datuak bildu ahal izateko.

Osasunbidearen Berrikuntza eta Antolaketa Ataletik azterlan bat sustatu zen, "Aurikula fibrila-

zio ez balbularrean K bitaminaren antagonistek zuzeneko eragineko ahotiko antikoagulatuzaileen aurrean duten onura kliniko garbia" deritzona, eta Osasun Departamentuaren ikerketa proiektuak sustatzeko dirulaguntzen 2022ko deialdirako aurkeztu zen. Atzera bota zen ez zuelako gainditu Ikerketaren Estatu Agentziaren puntuaziorako ebaketa puntua (Osasun Zuzendaritza Nagusiaren 1025/2022 Ebazpena).

Ez dago kronogramarik behatokia ezartzeko.

Bestalde, adierazi behar da Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatuzaileei buruzko Posizionamendu Terapeutikoaren Txostena berrikusten eta eguneratzen ari dela. Argitaratzen den IPT berriaren arabera eguneratu edota berrikusiko dira irizpide berriak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00162. Galdera, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erregistroko eta herritarren arretarako bulegoetan arreta presentziala aurretiazko hitzorduarekin nahiz gabe emateko eredu mistoaren ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00162 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Lehenengo galderari dagokionez: Noiz egingen da ebaluazio hori?

Nafarroako Gobernuaren erregistroetan eta herritarren arretarako bulegoetan aurretiko hitzordua eskatzeko 2023ko azaroaren 2an ezarritako sistema mistoaren ebaluazioa, etengabe monitorizatzea gorabehera, berori martxan jarri osteko bederatzi hilabete inguruko epean egingen da.

Bigarren galderaren erantzuna: Zeren bidez egingen duzue ebaluazioa?

Aurreikusten da honako jarduketa hauek egingen direla neurria monitorizatzeko eta sistema berria ebaluatzeko beharrezko informazioa eskuratzeko:

Lehenengoa. Datuak sartzea Herritarrentzako Arretaren Kudeatzailean: 08:00etatik 09:30era arteko tarteko arreten datuak bilduko dira, bai eta egunaren gainontzeko orduetarako erreserbatutako hitzorduenak eta tarte horretan aurretiko hitzordurik gabe emandako arretenak ere. Horren harira, jakinarazten dut kudeatzailea unitateetan ezartzen ari dela Nafarroako Gobernuaren erregistro eta arreta bulegoetan datuak kontrolatzeko inolako sistemarik ez delako egon. Jarduerari buruzko datuak izan nahi ditugu.

Datuak aztertuko ditugu, eta, beharrezkoa izanez gero, hartutako erabakia doitu.

Bigarrena. Gogobetetasun inkestak baloratzea herritarren arretarako bulego bietan, ezarritako sistemarekin dauden arazoak identifikatu ahal izateko, egonez gero.

Hirugarrena. Herritarren arretarako bulegoak eta erregistroak erabiltzen dituztenek aurkezten ahal dituzten iradokizunak aztertzea.

Laugarrena. Emaitzak aztertzea herritarren arretarako bulegoetako eta erregistroetako langileekin.

Bosgarrena. Aurretiko hitzorduaren sistemak (Iruñeko Udala) edota eredu mistoak (Tuterako Udala) ezarrita dituzten Nafarroako administrazio publikoetako herritarren arretarako beste ekipo batzuen esperientzia ezagutzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-23/PES-00163. Galdera, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialen bilerei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00163):

- Zenbat bilera eta zein egunetan egin du 2021eko Gizarteratze Plan Operatiboan ezarritako mahai sektorialetako bakoitzak (enplegua, etxebizitza, osasungintza eta hezkuntza) eratu zenetik gaur egun arte? Zehaztu mahai bakoitzaren arabera.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialletako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakontseilariaren erantzuna:

Honako data hauetan bildu da mahai sektorial bakoitza:

Enplegu inklusiboaren mahaia:

2021: hilero aldian-aldian (uztaila eta abuztua izan ezik)

2022: martxoak 9; apirilak 7; ekainak 2

2023: otsailak 28; apirilak 4

Etxebizitza inklusiboaren mahaia:

2021: otsailak 3; irailak 30

2022: otsailak 22; ekainak 30; abenduak 2

2023: martxoak 21; irailak 12; urriak 23

Osasun inklusiboaren mahaia:

2021: otsailak 12; irailak 27; urriak 22

2022: otsailak 16

2023: martxoak 22; martxoak 29

Hezkuntza inklusiboaren mahaia:

2021: otsailak 9; urriak 1

2022: otsailak 23; azaroak 14

2023: martxoak 22; martxoak 29

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Eskubide Sozialletako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00164. Galdera, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pobrezia larriak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-23/PES-00164 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Nastatek horri buruz ematen duen informazioa honako hau da, kasu honetan sexuaren eta adin tartearen arabera banakatuta:

1. taula. Pobrezia larriaren tasa sexuaren eta adinaren arabera. 2015-2021.

Guztira	2015			2016			2017			2018			2019			2020			2021		
	T	Giz.	E	T	Giz.	E	T	Giz.	E	T	Giz.	E	T	Giz.	E	T	Giz.	E	T	Giz.	E
	12,3	11,9	12,7	12,1	11,6	12,6	11,4	10,8	12,0	11,2	10,6	11,8	11,9	11,3	12,4	12,1	11,6	12,5	11,7	11,2	12,2
16 urtetik beherakoak	18,9	18,7	19,0	18,5	18,5	18,6	18,3	18,3	18,3	18,2	18,2	18,2	18,2	18,1	18,3	18,1	18,2	18,0	18,3	18,3	18,3
16 eta 29 urte artekoak	17,3	16,5	18,1	16,8	15,6	18,0	16,0	14,9	17,2	15,4	14,1	16,6	15,5	14,4	16,7	16,0	15,1	16,9	15,2	14,4	16,1
30 eta 44 urte bitartekoak	13,4	12,5	14,4	13,3	12,2	14,5	12,4	11,0	13,8	12,2	10,7	13,8	13,6	12,3	15,0	13,8	12,6	15,1	13,6	12,1	15,1
45 eta 64 urte bitartekoak	10,4	10,2	10,5	10,2	10,0	10,4	9,6	9,2	10,0	9,0	8,7	9,3	9,9	9,6	10,2	10,2	10,0	10,4	9,5	9,2	9,8
65 urtekoak eta hortik gorakoak	4,4	3,3	5,3	4,5	3,3	5,4	4,3	3,1	5,2	4,2	3,1	5,1	5,0	4,0	5,7	5,1	4,0	5,9	5,5	4,6	6,2

Iturria: Nastat-Nafarroako Estatistika Institutua, Nafarroako Populazioaren Errentaren Estatistika
 Legenda: T letrak "guztizkoa" nahi du esan, Giz. "gizonezkoa" eta E "emakumezkoa".

Metodologikoki, adierazi behar dugu Pobrezia larriaren tasa pertsonen kontsumo unitate bakoitzeko diru-sarreraren medianaren % 40 erabilita kalkulatu dela Horrez gain, 2023an Nastatek Nafarroako Populazioaren Errentaren Estatistika tratatzeko metodologia aldatu du, eta ikusten da serieak banatu dela: lehenengo aldia 2018 aurreko datuekin eta bigarren aldia 2019. urteaz geroztik. Seriea banatu da bermatzeko bateragarria dela INEk argitaratutako Etxebizitzaren errenta banaketaren Atlas estatistika eragiketarekin mugako balioen tratamendua eta falta diren balioen egozte bateratzean. Azken batean, Nas-

tatek 2019tik aurrez argitaratutako tasak berriz kalkulatu ditu kalkulu berrira egokitze aldera, eta, horrenbestez, 2019-2021 aldia ezin da alderatu 2015-2018 aldiarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00165. Galdera, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren hartzaileei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lan egiteko baldintzetan egon eta laneratzea lortu duten errenta bermatuaren hartzaileei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00165):

• 2022. urtean, lan egiteko egoeran dauden errenta bermatuaren onuradunen ehuneko zenba-

tek lortu du prestazioaren lehenengo hamabi hilabeteetan laneratzea? Zeintzuk dira kopuru absolutuak aldagai bakoitzean?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

2022. urtean, lan egiteko adinean dauden 4.952 pertsonak jaso zuten lehenengo aldiz errenta bermatu. Horietatik, 2.412 lan egiten hasteko prest zeuden, eta, horien artean, 693k enplegua lortu dute lehenengo hamabi hilabeteetan, hau da, lan egiten hasteko prest zeudenen % 28,73.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 7an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00166. Galdera, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-uzte goiztiarraren portzentajeari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-23/PES-00166 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona

Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eskola goiz uztearen definizioa: 18 eta 24 urte arteko biztanleria osoaren artean eskolatu gabe daudenen portzentajea, hau da, gehienez ere derrigorrezko bigarren hezkuntzako maila edota hezkuntzako aurreko mailak lortu dituztenak; 0,1 eta 2 Hezkuntza Mailen Nazioarteko Sailkapenaren arabera, CINE, 1997, hau da, eskolaurreko hezkuntza, lehen hezkuntza (oinarrizko hezkuntzako lehenengo zikloa) eta bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa (oinarrizko hezkuntzako bigarren zikloa). Eskola uzterako irizpide finkatua da inolako hezkuntzarik edota prestakuntzarik jaso ez izana inkesta egin aurreko lau asteetan.

Nafarroan eskola uzteari buruzko datuen taula 2015. urtetik 2022. urtera bitartean

2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
10,8	13,4	11,3	11,4	13	10,8	9,1	5,7

Unitatea: Ehunekoak

Iturriak: INE (Biztanleria Aktiboaren Inkesta) eta Eurostat (Sustainable Development Indicators)

Aldizkakotasuna: Urtekoa (hiruhilekoko datuen urteko batez bestekoak dira)

Oharrak: Hezkuntza Ministerioak urtero argitaratzen du Hezkuntzako adierazleen estatuko sistema, eta bertan barne hartzen du, betiere argituta iturria Biztanleria Aktiboaren Inkesta dela.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-23/PES-00167. Galdera, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko Batzordearen bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den Administrazioarteko Batzordearen bilerei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00167):

- Gizarteratze Planeko gobernantza-sisteman jasotzen den administrazioarteko batzordea zenbat aldiz bildu da eta bilera horiek noiz egin dira, batzordea eratu zenetik gaur arte?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Gizarteratze Plan Estrategikoa onetsi zenetik Administrazioarteko Batzordeak ez du bilerarik izan; izan ere, askotariko planetan egindako bitarteko ebaluazioetan, Departamentuak 2020an zehar egindakoetan, hain zuzen, egiaztatu zen planek, egituratuta dauden moduan, eraginkor bihurtzeko arazoak planteatzen dituztela, bereziki departamentu arteko jarduketak behar dituzten kasuan, eta, horregatik, zenbait neurri jarri eta urteko Plan Operatiboak ezarri ziren. Gizarte Inklusiorako lehenengo plan Operatiboan jadanik (2021) jasotzen da planaren gobernantza sustatzeko neurri gisa mahai sektorialak sortzea, koordinaziorako, parte hartzeko eta egikaritzea sustatzeko espazioak, alegia. Mahai horiek sortu zirenetik eta gaur egunera arte bildu izan dira. Mahai horiei buruzko informazio gehiago eman da 11-23/PES-00163 informazio eskaerari emandako erantzunean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca